

JON KORTAREN SOLASALDIA MUSTAFA CENIP-EKIN

Mustafa Cenip kulturaz jantzia den gazte bat dugu, 27 urtekoa, musulman praktikantea, Vatikanoko hainbat mendiotan kolaboratzaile izanez Benedikto XVI.a Aita Santuak Turkiara egindako bisita hurbiletik bizi izan duena.

Jon Korta:

- Benedikto XVI.a Aita Santuak Turkiara egin duen bisita emaitza onez burutu da. Zuk komunikazio arloan Aulki Santuarekin elkarlanean aritzeko aukera izan duzu. Zer iritzi duzu edo nola ikusi duzu bisita hori?

Mustafa:

Benedikto XVI.a Aita Santuak Turkiara egin duen bisita arrakasta handikoa izan da. Aurretik bazen kezka pixka bat Aita Santuaren segurtasunaz, baina turkiar nazioak mundu guztiaren aurrean erakutsi zuen Aita Santuari egin zion abegi ona. Bisita hau batez ere ekumenikotzat hartua izan bazen ere –Erroma eta Fanar-en arteko harremanei dagokiena– azken batean erlijioen arteko arloa izan da garrantzitsuena, hau da, kristauen eta musulmanen arteko elkarrizketa. Komunitate turkiarrrak oso begi onez ikusi du Aita Santuak Meskita Urdinean (Sultanahmet Camii) Mekara begira otoitz egin izana. Gainera, Aita Santuak turkieraz hitz egin zuen hainbat unetan, ospakizun eta agurtzeko une batzuetan bertako hizkuntza erabiliz.



Hau izan da beste seinale on bat. Nire ustez, bisita hau Islam-a eta Kristautasuna elkarrengana hurbiltze-bidean urrats esanguratsua izan da. Etorrizunerako gure itxaropenak piztu eta elkarriketaren emaitzak jarri dizkigu begi bistan.

- Aita Santuak bere bidaietan ohikoa den harrerarik izan ez bazuen ere, Eroga lehen ministroak, hainbeste adierazpenen ondoren, Aita Santuari pistan bertan ongietorria egiteko adeitasuna izan zuen. Arratsalde berean munduko prentsak zabaldu zuen, geroago Vatikanoko prentsaurrekoan gezurtatua izan bazen ere, Benedikto XVI.a Turkia Europar Batasunean sartzearen aldeko zela.

Mustafa:

Harrigarria da hori. Lehenik eta behin, Turkia ia guztiz musulmana da (% 98). Beraz, Aita Santua pertsonaia erlijioso gisa ez da hain ezaguna Turkiako iritzi publikoan. Gainera, Regensburg-eko hitzaldiak eragina izan zuen bisitan. Zenbait artikulu kritiko ere agertu ziren bisita honi buruz. Baina azkenik, Aita Santuaren eta Lehen Ministroaren arteko bilera onuragarri gertatu da bi aldeentzat. Ez dago argi Aita Santuak Turkia Europar Batasunean sartzeari buruzko iritzia agertu zuenik; dena dela, berak ez zuen ezer esan horren aurka. Berak ongi daki Turkiak historian zer garrantzi izan duen eta gaur egun zer kezka geopolitiko dauden. Nik uste dut Turkia moderno, demokratiko eta europarra ikusiko zuela.

- Aita Santuak Ratisbona-n egin zuen hitzaldia gogor kritikatu zuen buruzagi erlijiosoetako bat, hain zuzen ere, Prfo. Bardakoglu izan zen, Turkiako erlijio-gaietako zuzendaria. Aita Santuaren aurrean egin zuen hitzaldian bazen Ratisbona-ri buruzko aipamenik.

Mustafa:

Bai, jendeak uste zuenez, Regensburg-eko hitzaldiaren aipamen inplizitua egin zuen. Argi dago, Ratisbona-ko hitzaldiak mindu egin zituela musulmanak oro har. Horregatik, musul-

man buruzagia den aldetik, bere iritzia agertu zuen berriro ere eta Islam-ari buruz zabal dabiltzan uste oker eta aurreiritziez ohartarazi zuen. Baina ezin daitezke onartu inola ere errugabe-koen aurka izan ziren gogorkeriazko erantzunak.

- Bilera ekumenikoetan seinale adierazgarriak ikusi ditugu. Gogoan dut, esaterako, Bartolome I.aren eta Benedikto XVI.aren arteko besarkada. Vatikanoko gaietan adituak diren zenbaitek baieztatu dutenez, bidaia honek lehenaren eta gero-aren arteko mugarria markatuko du.


Mustafa:

Seinale bezala, Aita Santuaren eta Patriarkaren arteko bilera oso garrantzitsua zen. Benedikto XVI.a Aita Santuak luze eta zabal aztertu du Ortodoxoen tradizioa eta Patriarkak urte batzuk igaro ditu Erroman. Horregatik itxaropen handiak zeuden bilera honetan jarrita, Elizen arteko elkarrizketa ekumenikoaren garapenari dagokionez. Hala ere, adierazpen batuan ez da ezer berririk sartu gai teologikoetan. Dena dela, guk itxaropenez egon behar dugu eta otoitz egin behar dugu kristau-fede ezberdinen eta erlijio ezberdinen artean bakez eta batasunez arazoak konpontzeko modua egin dadin.

- Musulman praktikantea izanik, zer sentimendu izan zenuen Aita Santuak Meskita Urdina bisitatu zuenean eta une batean Mekarantz begira otoitz egin zuenean?

Mustafa:

Aita Santuak Islamarekiko errespetu handia erakutsi zuen Meskita Urdinean sartuz eta otoitz eginez. Hark berretsi egin zuen guk, musulman eta kristauek, Jainko bakarrarengan sinesten dugula, Abrahamen Jainkoagan, Moisesen Jainkoagan, Jesusen Jainkoagan eta Muhammaden Jainkoagan. Meskita Urdinean egindako keinu horrek Islam-ean eta kristautasunean sinesten dutenek bakeak egin eta mundu baketsuan batera bizi eta lan egin dezaketela erakusten duen une historikoa esan nahi zuen. Musulmana naizen aldetik bihotz-bihotzez estima-



tzen dut Aita Santuak Mekarantz begira egin zuen otoitza. Argi erakutsi digu hark, elkarrizketa elkarrekin egindako otoitzaz ere egin daitekeela. Honek Joan Paulo II.ak Asis-en antolatu zuen Bakearen aldeko Munduko Otoitz Jardunaldia ekarri zidan gogora.

- Benedikto XVI.ak Turkiako kristau-komunitate txikiarekin elkartzeko aukera ere izan zuen. Bere hitzaldietan erlijio-askatasuna aipatu zuen behin baino sarriago. Bisita honen ondoren, uste duzu, kristau-komunitateak askatasun handiagoa izango duela?

Mustafa:

Egia esan, hor dago eztabaidaren gakoa. Lehenik geure kontzeptuak argitu behar ditugu. Zer da erlijio-askatasuna? Ba-koitzak bere erlijio-askatasun praktikan jartzea bada, musulmanak ez diren komunitate guztiek dute eskubide hori. Gotzain

katolikoek ere aitortzen dute Turkian Eukaristia ospatzeko eta erlijio-eginkizunak betetzeko askatasuna dutela. Baina erlijio-askatasunaren definizioan legezko onarpena sartzen bada, zenbait arazo direla esan behar. Turkia estatu laikoa denez geroztik, institutu erlijiosoak onartzea problematikoa da musulmanentzat berentzat ere. Bestalde, Turkiako Errabino nagusiak esan zuen, Aita Santuarekin Istanbulen izan duen bileran, honi adierazi ziola juduek erlijio-askatasun osoa zutela Turkian. Baina guk uste dugu, Aita Santuaren bisitak bizkortu egin ditzakeela zenbait erreforma erlijio-fundazioak legez edo ofizialki onartuak izan daitezzen.

- Bereziki gogoan geratu zaizu Aita Santuaren bisitako uneren bat?

Mustafa:

Niretzat unerik garrantzitsuena Meskita Urdinera eta Hagia Sophiara egindako bisita izan da. Hark Turkiako ikurtzat jotzen diren bi monumentu bisitatu zituen eta Islamarekiko, turkiar kulturarekiko eta tradizio historikoarekiko begirune handia erakutsi zuen.

- Ikasturte honetan Erljioei eta Kulturei buruzko ikasketak burutzen ari zara Erromako "Gregoriana" Unibertsitatean. Nola bizi duzu esperientzia hau?

Mustafa:

Kristautasuna estudiantzen ari naiz "Gregoriana" Unibertsitateko Erljioen eta Kulturen Ikasketeko Institutuan. Egia esan, poz-pezik eta ikasketetan gozatzen ari naiz. "Gregoriana" Unibertsitateak harrera ona egin dit. Gure errektorea, irakasle eta adiskideak hurbil-hurbil ditut beti. Teologia Biblikoa eta Dogmatikoa ikasteko aukera izan dut. Gainera, A. Reginald Foster-ren ikasle izateko suertea ere izan dut. Bera latin hizkuntzaren mundu mailako espezialistarik handiena da eta, Karmeldar Oinuts gisa, fede-gizona. Ez ditut egundo ere ahaztuko gu San Agustinen sermoiak irakurtzen ari ginela negar egiten zueneko

une haiek. A. Daniel Madigan australiar Jesulagun eta Islamaren adituak, Michael Signer Errabinoak, Massimo Grilli Irakasleak eta Paolo Naso Irakasleak emandako kurtsoetan ere partaide izan naiz. Hainbat unibertsitatetan gonbidatu naute bazkari eta afarietara. Jaunaren testamenturako, otoitz eta lan (“ora et labora” San Benitok zioen bezala) besterik egiten ez duten pertsona sagaratzuz inguraturik ikusten dut neure burua etxe honetan.

- Zure familia artean eta lagunen inguruan erlijioen arteko elkarrizketa sortzeko benetako nabia sumatzen duzu?

ustafa:

Bai, erlijioen arteko elkarrizketaz interes handia duten adiskideak ditut. Turkiara noan guztian deitzen didate Erromako neure esperientziaz hitz egin dezadan. Katolikoei ere behin baino gehiagotan eman dizkiet hitzaldiak. Gainera, nire ama elkarrizketan sartu-sartua dago. Bera maistra da eta bere ikasgelan beti izan ditu ikasle juduak. Urtero ospatzen ditu juduen jai nagusienak ikasle horien familiekin, esaterako, Hannukah, Yom Kippur, Rosh Hashanah. Artikuluak ere idatzi ditu kultura eta erlijio ezberdinen arteko elkarrizketa bultzatzeko. Baina gauzarik garrantzitsuena guk otoitz egitea da bakea eta elkarrizketa lortzeko Jainkoak argitu gaitzan.

- Zeure gogoko den agur bat arabieraz.

Mustafa:

Karmeldarren komunitatea agurtu nahi nuke: Salaamun Aleykum (Bakea zurekin). Urteberri zorionsua opa dizuet guztioi. Nik otoitz egiten dut zuek Jainkoaren testamenturako lanean jarrai dezazuen munduko hainbat lekutan eta pertsonen eta nazioen arteko bakearen alde eginahalak egin ditzazuen. Eskertuko nuke zeuen otoitzean anaia bezala ni gogoratzea ere. Jainkoak bedeinka zaitzala.

Jon Korta